

## Erakutsi

**E**txeko lanak jarri dizkiot neure buruari urte berri honetarako. Eusko Jaurlaritzatik jasotako telefono dei baten ondorioz hasi zen dena.

Urria amaituta zegoen, telefonoz bestaldekoak Antzerki produkzioen diru laguntzen —epaimahaian egoteko— eskaera egin zidanean. “Nola? Borreroarena egitea eskatzen ari zarete?”. Ezetz esan nien. “Nik ez nuela nire burua lan horretan ikusten. “Norbaitek egin behar zuela eta nor hobeto hainbat eta hainbat urtez diru laguntza horren eske joandako bat baino, profesioa barru-barrutik ezagutzen zuen bat baino...” argudiatu zidaten.

“Baina nik atsedean urtea hartu dut”, esan nien. “Horrexegatik behar zaitugu hain zuzen ere, ez duzulako ezer eskatzeko. Hara joanda ez duzulako ezer galtzeko”. Eztabaidan bost minutu aritu ondoren, baiezkua eman nien. Telefonoz bestaldekoak zorionez arrazoia zuela baieztatu nuen gerora: ez nuen ezer galtzeko, asko nuen ikasteko.

Egun gutxira ailegatu zitzaidan informazioa. Zazpik osatuko genuen epaimahaia, programazioari lotuta zeudenak lau ziren eta hiru, modu batera edo bestera, konpainiei lotutakoak. Pozez hartu nituen bes-teen izenak, lehen aldiz epaimahai osoa euskaraz hitz egiteko eta ulertzeko gai baitzen, lehen aldiz zazpitik hiru emakumeak baikin.

Lan astuna. Aurretik, 35 proiektu potolo goitik behera irakurri beharra neukan.



DANI BLANCO

Antzerki konpainien etorkizuna esku artean neukan urte berri honi begira eta banekien erantzukizunez jokatu behar nuela. Edozein eratar, nik banekien ere zein garrantzitsua zen norbere proiektua epaimahaiaren aurrean defendatzeko ematen duten hamabost minutuko tartea. Marraren alde hori nuen nik batez ere ezaguna. Urteak neramatzan taldeko proiektuak defendatzen. Baina Gasteizen bi egun osoz nire lankideen defentsak entzun eta gero jakin nuen nire uesteak motzak geratu zirela. Bedeinkatuak hamabost minutu horiek! Hauexek besteak beste han ikasitakoak:

- ✓ *Erakutsi* segurtasuna, sendotasuna hitzetan. Bai kor beti.
- ✓ *Erakutsi* proiektuarekiko zure mai-temina, otsoen aurrean ere defendatzeko prestutasuna.
- ✓ *Erakutsi* proiektuaren beharra gizarte honek aurrera egite aldera.
- ✓ *Erakutsi* talde lana.
- ✓ *Erakutsi* proiektua bera, hitzekin, sortuko diren irudien kontakizunarekin, han entzungo diren soinu eta doinuekin.
- ✓ *Erakutsi* hemendik aurrerakoak zenbat balio duen, aurrekoak ahazme-nean uzteko moduan.

Eta batez ere *Erakutsi* ez zatozela eskean, proiektu on bat eskaintzera baizik.

Orain etxeko lanen ordua iritsi zait. Proiektu guztiak ikusi nahi nituzke eta han hartutako erabakiak alferrikakoak ez zirela izan erakutsi neure buruari. Eurei zor diet! ■



### Telefonoz bestaldekoak

arrazoia zuela baieztatu nuen

gerora: ez nuen ezer

galtzeko, asko nuen ikasteko



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Euskal Herria. Aspal-dikoa da katalanekiko gure harremana. Gogoan ditut kartze-

lan ezagututako militantek, harremana ideolo-gikoa eta politikoa adina afektibo ere bazela sentiarazten ziguten haiek. Gogoan dut Bartzelonan eraikitako Euskal Etxea. Joseba Sarrionandia ikasle ipurterrea kazeta honen kronikagile bilakatua, Ramblasetatik behera joanean Itur-rengo ttunturroak ikusi ez zituena, ziutateak irentsita. Eta Kiko Pi de la Serrak goizaldeko ordu txikitik bere etxera eramane gintuenekoa, musika eta kantuz blai gosaria barne egin genueneko hura, handik gutxira Valentziako Dadian

## Catalunya

elkarrekin kantatzeko bidea ireki ziguna. Ogibidezkoak ere, ugar-riak izan dira gure artekoak katalanekin. Eta ahantzi ezineko

ustelaren bat aparte, bikain batez adierazi nezake haiekin izaniko tratuen bilakaera. Eguraldiari erreparatzen diodanean beti dut Katalunian arreta emana, eta Bartzelonan bereziki nire etxea ere balitz legez. Eta San Mameseko iru-diak bezainbat, manifarenak eta inguruko kaleetako giroe-nak berotu ninduten, ogibideko politikarien kondoi men-talek nazka ematen zidaten bezala. Jokalariek dute arrazoia. Eremua hauta, lortu arte borroka, eta ondoren joka, Viscas eta Goraz bete arte Europa. ■